



Otsaila 2010 • 103 Zbk.

Otsailak 3 Eguaztena

- **JAI BATZORDEA:** urteko lehenengo batzarra izango dugu
 - Tokia: Udaletxea
 - Ordua: 19:30ean

Otsailak 4 Eguena

- **AGATE DEUNA BEZPERAKO KANTA KALEJIRA LEMOATIK**
 - Tokia: Udaletxea
 - Ordua: 10:00etan
 - Ibilbidea herrian zehar egingo dugu
 - Oharra: eskolatik irteera 09:30ean izango da

Otsailak 11 Eguena

- **J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta, TXITXIBURDUNTZIA ESKOLAN, guraso eta ikasleentzat**

Otsailak 12 Barikua

- **J. B. Eguskiza Meabe Ikastetxeak antolatuta, MOZORROEN FESTA**
 - Lekua: kiroldegia
 - Ordua: goizeko 11:00etatik aurrera
 - Gurasoek prestatutako txokolatada egongo da

Otsailak 13 Zapatua

- **HAURRENTZAKO INAUTERI FESTA**
 - Lekua: kiroldegia
 - Egitaraua:
 - 17:00 Merendola
 - 17:30 "Txikiglub" ikuskizuna "Detraka" taldeagaz: *jokoak, proba ezberdinak, konfeta, musika eta hainbat gauza dibertigarri!*
 - 19:00 Mozorro desfilea
 - 19:30 Jaialdiaren amaiera

Lemoako Udalak antolatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza



Otsailak 15 eta 16

LUDOTEKA GOIZEZ ZABALDUKO DA

- Ordutegia: 11:00etatik 14:00etara
- Otsailaren 16an, martitzena, 11:00etan **tailer bereziak** izango ditugu ludotekan. Hauexek izango dira: "KARTULINAZKO MASKARAK", "GLOBOFLEXIA" eta "TXAPAK".

Lemoako Udalak antolatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestutako ekintza

Otsailak 18 Eguena

LEMOAKO HAUR ETA GAZTEEN IX. IPUIN LEHIAKETAREN SARI BANAKETA. MARSEL MAGOA IZANGO DUGU ETA IKUSKIZUN MAGIKOA ESKAINIKO DU!

- Tokia: ludoteka
- Ordua: 18:00etan
- Parte-hartzaile guztiek diploma bat jasoko dute
- Ipuin irabazleen lanak liburuxka baten argitaratuko dira, eta Lemoako web orrialdean agertuko dira

Lemoako Udalak antolatu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babestutako ekintza

Otsailak 28 Domeka

ZINEMARA JOANGO GARA, IGORRERA!!!

- Pelikula: "**Donde viven los monstruos**"
- 10 urtetik gorakoentzat
- Izena eman: ludotekan, 16:30etatik 19:30etara, otsailaren 1etik 22ra arte
- 20 plaza egongo dira (izena emateko ordena kontuan hartuko da)
- Prezioa: 4€
- Irteera ordua: 16:00etan ludotekan
- Itzulera ordua: 19:30ean



OHARRAK

- **EUSKARA ESKAINTZARIK ONENA.** Otsailean zehar, Lemoako Udalak merkataritza esparruan euskararen erabilera sustatzeko CDa banatuko du denda eta tabernetan. Zalantza barik eguneroko lanean kalitate erantsia emango digun produktua da euskara. CD horretan, merkataritzaren inguruko informazio zabala aurkitu ahal izango da (hiztegia zehatza, kartel egokia egiteko aukera, agiri jakin bat egiteko aukera...).
- **"BERBALAGUN" EUSKARA PRAKTIKATZEKO TALDEA.** Interesaturik bazabiltza anima zaitetz, deitu 946312551 telefono zenbakira, edo bidali mezu bat helbide honetara alberto@ekilore.net. Informazio gehiago gure web orrialdean.
- **LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK.** **Haurrentzako:** Aio, Pelaiol! (Antton Kazabon), Paskalin kulerozikin (Antton Dueso), Yasuke (Antton Irusta). **Nagusientzat:** Euskaldunak munduko itsasoetan zehar. Itsasoko historia..
- **KZ Guneko tutorea Lemoan:**
 - Otsailak 3, eguaztena: 18:00etatik 19:30era
 - Otsailak 17, eguaztena: 18:00etatik 19:30era
- **Ganzabal Mendi Taldeak** antolatutako ekintzen inguruko informazioa: Lemoako eskoletan - Jubilatuen Etxeko 1. solairuan eguaztenetan 20:00etatik 22:00etara edo 675701359 / 946314597 telefono zenbakietan.
- **Igorreko Kultur Etxeko zine egitaraua** liburutegian kontsultatu daiteke.